

5. DIRU-ITURRIAK

Atal honetan honako galdera egin beharko diozue zuen buruari: zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo da zuen bezero potentziala eskaintzen diozuen produktu edo zerbitzuaren truke?



Irudia

Produktuak bezeroei laguntza handia eskaintzen die batez ere uda eta udazkenen garaian, baina gainontzeko urtean zehar ez dauka erabilera handirik, salmenta maximoa udan izango da eta gainontzeko denboran zehar nahiko baxua izango da. Ondorioz, guk eskaintzen dugun produktuak kalitate ona dauka eta iraupen luzea izateko dago pentsatuta, beraz prezioa ez da guztiz merkea izango. Hala ere, jendea ez da prezio oso altuak ordaintzeko prest egongo eta horregatik produktua ahalik eta sinpleena izango da. Itzalkiaren prezioa 100€-koa izango da lehen ideia moduan, materialen kostuaren eta garraio eta lan kostuen arabera zehaztuko dena etorkizun batean. Hau Internet bidez eskuratu ahal izango da Amazon eta horrelako webguneetan, garraioa dohainik izanez bi itzalki baino gehiago erosiz gero.